


## Euskal AEko industria-prezioak % 0,4 igo dira 2021eko apirilean aurreko hilaren aldean

**Energia da prezioen hazkunderen buru 2021eko apirilaren eta aurreko urteko apirilaren artean: % 18,5 igo da**

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioak % 0,4 igo dira 2021eko apirilean aurreko hilaren aldean. Apirileko urte arteko tasa, azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena, % 5,2koa izan da.

### Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa xeheago batek agerian uzten du ezen, 2021eko apirilean, honako sektore hauek izan dituztela prezioetako hazkunderik handienak aurreko hilaren aldean: *Industria kimikoa* (% 2,7), *Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria* (% 1,2) eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 1,1) Aitzitik, hilabete artean prezioetan jaitsierarik handienak izan dituzten sektoreak honako hauek izan dira: *Erauzketa-industriak* (-% 3,7), *Kokeriak eta petrolioaren finntzea* (-% 1,1) eta *Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa* (-% 1,0).

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraituz, prezioen aldaketek zeinu desberdinak izan dituzte: *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 0,9 igo dira aurreko hilaren aldean, zeren *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* azpisektorea % 1,0 igo baita, eta *Kontsumo-ondasun*

iraunkorra % 0,1. Bitarteko ondasunen prezioak % 0,6 igo dira, eta Energiarenak % 0,1. Aitzitik, Ekipo-ondasunen hil arteko prezioak % 0,2 jaitsi dira.

### Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2021eko apirila

|                                                                  | INDIZEA      | ALDAKUNTZA %      |                   |
|------------------------------------------------------------------|--------------|-------------------|-------------------|
|                                                                  |              | 2021api / 2021mar | 2021api / 2020api |
| <b>INDIZE OROKORRA</b>                                           | <b>105,3</b> | <b>0,4</b>        | <b>5,2</b>        |
| <b>Sektore-banaketa</b>                                          |              |                   |                   |
| <b>Erauzketa industriak</b>                                      | <b>102,0</b> | <b>-3,7</b>       | <b>-6,8</b>       |
| <b>Manufaktura-industria</b>                                     | <b>106,5</b> | <b>0,3</b>        | <b>6,0</b>        |
| Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria                   | 108,0        | 1,2               | 3,8               |
| Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza           | 100,0        | 0,0               | -10,0             |
| Zurgintza, papera eta arte grafikoak                             | 103,8        | -0,1              | -0,1              |
| Kokeak eta petrolioaren fintzen                                  | 104,2        | -1,1              | 40,3              |
| Industria kimikoa                                                | 113,3        | 2,7               | 4,0               |
| Botiken fabrikazioa                                              | 112,0        | -0,2              | 2,8               |
| Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak      | 99,3         | 0,3               | -0,3              |
| Metalurgia eta produktu metalikoak                               | 109,7        | 0,9               | 7,5               |
| Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa | 107,9        | -1,0              | 4,9               |
| Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioa                       | 107,3        | 0,0               | 2,3               |
| Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa  | 103,9        | 0,4               | -1,4              |
| Garraiorako materialen fabrikazioa                               | 106,4        | -0,8              | -1,4              |
| Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa    | 107,6        | 0,9               | 1,1               |
| <b>Energia elektrikoa, gasa eta lurruna</b>                      | <b>98,0</b>  | <b>1,1</b>        | <b>0,5</b>        |
| <b>Ura</b>                                                       | <b>110,4</b> | <b>0,3</b>        | <b>1,0</b>        |
| <b>Industria-sektore handien arabera</b>                         |              |                   |                   |
| Kontsumo-ondasunak                                               | 108,3        | 0,9               | 3,8               |
| Kontsumo-ondasun iraunkorrak                                     | 105,0        | 0,1               | 1,3               |
| Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak                                  | 108,9        | 1,0               | 4,2               |
| Ekipo-ondasunak                                                  | 107,4        | -0,2              | -1,0              |
| Bitarteko ondasunak                                              | 106,5        | 0,6               | 4,5               |
| Energia                                                          | 101,7        | 0,1               | 18,5              |

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

**Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea**

Urte arteko terminoetan (2021eko apirila 2020koaren aldean), prezio-hazkunderik handienak adar hauetan izan dira: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 40,3), *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 7,5) eta *Produktu informatiko, elektronikako eta optikoen fabrikazioa* (% 4,9). Prezioen jaitsierarik handienak, oster, honako sektore hauei dagozkie: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (-% 10,0), *Erauzketa-industriak* (-% 6,8) eta *Makineriaren eta ekipoen fabrikazioa* zein *Garraio-materialaren fabrikazioa* (-% 1,4 biotan).

Helburu ekonomikoaren arabera ondazun-talde handien prezioen aldakuntza, urte arteko aldian, positiboa izan da *Energiarentzat*, prezioetan % 18,5eko igoerarekin, *Bitarteko ondasunentzat*, % 4,5ekoarekin, eta *Kontsumo-ondasunentzat* osotasunean, % 3,8ko hazkundearekin; izan ere,

*Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren prezioak % 4,2 igo dira, eta Kontsumo-ondasun iraunkorrenak % 1,3. Aitzitik, urte arteko terminoetan, Ekipo-ondasunak % 1,0 jaitsi dira.*

---

**Informazio gehiagorako:**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prensa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62*